



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeko bozeramailearen idazkia, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutu Politikorako Proposamena tramitatzeke onartzeko Mahaiak hartu zuen erabakia berriz azter dadila eskatzen duena. (8492) (Esp.: 07/13.01.00.0001)

Lehenengo eta behin, 23.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzun ondoren, Mahaiak, bigarren lehendakariak eta lehen idazkariak kontra bozkatu duten arren, honako erabaki hau hartu du:

1. Mahaiak aztertu egin du Socialistas Vascos/Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko azaroaren 4an hartutako erabakia berriro aztertzeke aurkeztutako eskaera. Izan ere, egun hartan Legebiltzarreko Mahaiak kalifikatu eta tramitatzeke onartu zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutu Politikorako Proposamena, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 46 a) artikuluari jarraituz bidali baitzuen.

Talde horren idazkiaren arabera, ekimen hori Estatutua aldatzeke proposamen gisa tramitatzeke onartu denez eta tramitazioa Araudian legegintzako ohiko prozedurarake aurreikusita dauden arauak betez egitea erabaki denez (salbu eta Osoko Bilkuraren gehiengo osoaren babesa eskuratu behar duela), lege-proiektuekin duen antzekotasuna dela-eta erabaki horri aplikatu egin behar zaio Ganberake Araudiaren 101. artikuluan eta ekainaren 30eko 7/1981 Jaurlaritzaren Legearen 57. artikuluan kasu horietarake aurreikusitakoa. Zehatzago esanda, zioen azalpena izan behar du, zioei buruz iritzia emateke beharrezke aurrekariak aipatu behar ditu, eta adierazi behar du, orobat, aurrekontuei kargarik erantsiko ote zaien.

Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak egoera berean egon behar dutela iritzirik, berriro aztertzeke eskatu duen taldeak Mahaiari eskatzen dio Jaurlaritzari eska diezaizkiola Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutu Politikorake Proposamenaz iritzia emateke beharrezke aurrekariak, eta proposamen horren izapideak etenda gera daitezela, harik eta dokumentazio hori bidaltzen den arte.

2. Sortu den auzia konpontzeke komeni da kontuan hartzea lege-ekimenen erabilera Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 27.4 artikuluan araututa dagoela, baina Estatutua eraberritzeke ekimena oinarritzake araudi instituzionalaren 46 eta 47. artikuluetan xedaturik dagoela. Bi ekimen motak eragiten dituzten arauen izaera desberdinen ondorioz gaia era desberdinetan araturik dago. Desberdintasun horrek isla du, halaber, ekimen horiek prestatzeke behar diren prozedurak aurrera eramateke baldintza eta izapideetan. Ondorio horietarake, aipagarria da mugatua dela erreforma-proposamen bat aurkez dezaketen lagunen kopurua eta, Gorte Orokorretara bidali aurretik, gehiengo osoa behar dela horrelake proposamen bat onartua izan dadin.





3. Mahaiak erabaki du proposamena legegintzako ohiko prozeduran aurreikusitako arauekin bat etorri izapidetzea, baina horrek ez du aldatzen ekimenaren izaera, lege-proiektu bihurtzen baitu. Izan ere, prozedura hori zuzenketei eta eztabaidari dagokienez bakarrik aplikatuko da, eta azken bozketa kanpo geratuko da. Aplikazio mugatu horretatik ezin da ondorioztatu Jaurlaritzaren ekainaren 30ko 71/1981 Legean jasotako lege-aurreproiektuen diziplina erreforma-proposamen honetarako ere erabili behar dela.

Lehenengo eta behin, Talde Sozialistak eskatutakoa onartzen bada, Mahaiaren erabakiak atzeraeragineko ondorioa izango du, eta ezin da inola ere hala izan. Gainera, erabaki horrek, noski, Ganberaren barne-eremuan bestetan ez du eraginkortasunik izango. Bestalde, Jaurlaritzak bere ekimena gauzatu aurretik bete behar dituen baldintzak Legebiltzarraren eremutik kanpo daude. Bukatzeko, Mahaiak soilik eskatzen du Jaurlaritzari jarduera arautzen dioten legeek exijitzen diotena.

4. Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean ez da inola ere jasotzen Estatutua aldatzeko proposamenik presta daitekeenik botere betearazlearen baitan. Hori dela eta, proposamen horiei ezin zaie eskatu lege-aurreproiektuetan ezarritako baldintzak bete ditzaten. Hala ere, Jaurlaritzak bidalitako proposamenak zioen azalpena eta testu artikulatua ditu, Jaurlaritzaren legeak eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 101. artikulua adierazi bezala. Duen helburuaren izaeratik ez du batere zentzurik pentsatzeak aurrekontuei kargarik eragin diezaiekeenik.

5. Berrito aztertzeke idazkian espresuki aipatzen ez bada ere, esan behar da, idazkia Jaurlaritzaren proposamenaren aurrekarietaz oro har ari denez, Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautzeko apirilaren 13ko 187/1999 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz, batzorde horrek ez duela zertan irizpenik eman Estatutua aldatzeko proposamenei buruz.

6. Jaurlaritzak Bozera maileen Batzordean duen ordezkariaren bidez adierazi du Jaurlaritzaren Kontseiluak bakar-bakarrik erabili dituela Legebiltzarrean bertan 2001eko uztaileko lehendakariaren inbestiduraz geroztik izandako eztabaidak eta hartutako erabakiak: Autogobernuari buruzko 2001eko urriaren 25eko osoko bilkura, Autogobernuari buruzko Batzordearen lanak, Osoko Bilkurak 2002ko uztailaren 12an onetsitako irizpena eta politika orokorrari buruz 2002 eta 2003ko irailean izandako eztabaidak. Horiek badira ekimenaren aurrekariak eta horiek denak Ganbera honen eskuetan badaude, pentsatu beharko da baldintza hori ere bete egin dela.

Azaldutakoa kontuan harturik, berrito aztertzeke egindako eskaera ezestea erabaki da.





Bukatzeko, Mahaiak erabaki du ekimenaren izapideekin jarraitzea. Beraz, zuzenketak aurkezteko epea berriro ireki da. Epe hori abenduaren 12an bukatuko da.

Euskal Legebiltzar Talde Popularreko bozeramailearen idazkia, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutu Politikorako Proposamenaren tramitatzea onartzeko Mahaiak hartu zuen erabakia berriz azter dadila eskatzen duena. (8578) (07/13.01.00.0001 esp.).

Lehenengo eta behin, 23.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzun ondoren, Mahaiak, bigarren lehendakariak eta lehen idazkariak kontra bozkatu duten arren, honako erabaki hau hartu du:

1.- Mahaiak aztertu egin du Popular Vasco/Euskal Talde Popularra legebiltzar-taldeak Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko azaroaren 4an hartutako erabakia berriro aztertzeko aurkeztutako eskaera. Izan ere, egun hartan Legebiltzarreko Mahaiak kalifikatu eta tramitatzeko onartu zuen "**Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutu Politikorako Proposamena**", Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 46 a) artikuluari jarraituz bidali baitzuen.

Talde horren idazkiaren arabera, legeari egindako iruzurra da Mahaiaren erabakia, Jaurlaritzaren ekimena ez baita estatutua aldatzeko proposamena, Konstituzioa aldatzekoa baizik. Orobat, legebiltzar-talde horren ustez, Mahaiak proposamenaren edukiaren alde aurreko azterketa egin behar zuen, edukiak Konstituzioko 23.2 artikulua ezartzen duen oinarritzko eskubidea urratzen duen edo ez erabakitzeko, hau da, eta euskal legebiltzarkideei gagozkiela, proposamenaren beharrezko aurrekariak ezagutzeko eta proposamena Araudira eta Konstituziora egokitzen den jakiteko eskubidea. Era berean, alde aurreko azterketa horren bidez erabaki behar zen ea beste bi eskubideok urratzen diren: proposamenaren edukia eztabaidatzeko prozedura Araudiaren arabera izatekoa eta, azkenik, lantzen ari den ekimenaren testua Konstituzioaren arabera izatekoa. Horren ondoren, idazkiak zehazten du Jaurlaritzaren proposameneko zeintzuk artikulak diren, bere ustez, konstituzioaren aurkako. Halaber, idazkiaren arabera, Eusko Jaurlaritzak ez du eskumenik Konstituzioaren aldaketa eskatzeko, hori baita azken buruan ekimenak eskatzen duena. Bukatzeko, idazkiak, ESKATZEN DIOT atalean, galdegiten du berriz azter dadila proposamena onartzeko erabakia, argi dagoelako Konstituzioaren aurkako proposamena dela eta urratzen duelako Konstituzioko 23.2 artikulua legebiltzarkideei ezagutzen dien eskubidea.

2.- Talde Popularraren idazkiak aipatzen dituen gai guztietatik Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen ekimenaren kalifikazioari buruzkotik hasiko gara; izan ere, eskaeraren oinarrian dagoen arrazoibidearen arabera, Mahaiak begiratu behar zuen, Araudiak eskatzen duen proposamenaren alde aurreko azterketa egiterakoan, ea





proposamena Konstituzioaren arabera den eta ea Konstituzioko 23.2 artikuluko oinarritzko eskubidea errespetatzen duen.

Ezin da eskaera hori onartu. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak gai horretaz errepikatutako doktrinak ez die mahaiari inolako biderik ematen legegintza-ekimenetako edukiaren konstituzionaltasunaz erabakirik hartzeko (Konstituzio Auzitegiaren epaiak, 38/1999, FJ3; 107/2001, FJ 3.b; 203/2001, FJ 3; 177/2002; eta duela gutxi emandako 40/2003). Esandakoak, jakina, estatutuak aldatzeko legegintza-ekimenen kasuan ere balio du; doktrinaren arabera, eztabaida eramaten duten organoei dagokie balorazio hori egitea (osoko bilkura eta batzordeak), eta, legea onetsi eta indarrean sartu ostean, Konstituzio Auzitegiari, Konstituzioko 161.1 a) eta 163 artikuluetan ezarritako prozedurez eta Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaz baliatuko delarik.

Jurisprudentziaren doktrina horrek berorrek ohartarazi du mahaiak legegintza-proposamenen konstituzionaltasuna aztertzeko betekizuna euren gain hartzea dela, hain zuzen ere, Konstituzioko 23.2 artikuluko oinarritzko eskubidearen aurkako mehatxuetako bat. Doktrinaren arabera, lehengoari gagozkiola, urratu egiten da 23.2 artikuluko oinarritzko eskubidea, baldin eta ekimen bat ustezko konstituzionaltasunik eza dela-eta onartzen ez bada; horrela jokatzuz gero, eragozten dira zuzenketak aurkeztu eta aldeztuko eskubidea eta eztabaidan eta botazioan parte hartzeko eskubidea.

Kalifikatzeari eta tramitatzeke onartzeari dagokienez, doktrina horri loturik jardun ohi du Eusko Legebiltzarreko Mahaiak; izan ere, doktrina horrek laguntzen du ondoen Mahaiaren ordezkate-funtzioa garatzen eta Mahaiak aintzat hartu behar dituen gaien eztabaida publiko eta plurala gauzaten. Horrekin koherentzia izanez, Mahaiak aldeaz aurreko azterketa egiten du, ekimenek Araudian ezarritako betekizunak betetzen dituen egiaztatuz eta legebiltzarkideen eskubideen erabilera bideratuz.

Irizpideok gai honi lotzen badizkiogu, berretsi behar da azaroaren 4an gai honetaz hartutako erabakia, proposamena Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 46 a) artikulua legitimatzen duen organo batek egin delako eta testu arauemailea delako. Mahaia Araudiaren arabera duen egiaztatze-lan horretaz harago joatea Legebiltzarreko eztabaida egin behar duten organoen funtzioetan sartzea litzateke.

3.- Mahaiak proposamena tramitatzeke onartu izana ezin da legebiltzarkideen eskubideen mugatzaile edo kaltegarri izan; izan ere, legebiltzarkideen ahalmena murriztu beharrean, areagotu egiten du edo, besterik ez bada, egingarri egiten du. Nolanahi ere den, urratzea alegatzen denean, zehaztu egin behar da legebiltzarkideen ius in officium delakoa osatzen duten ahalmenen artean zeintzuk kaltetzen diren.





Has gaitzen "Konstituzioaren araberako ekimenak eztabaidatzeko" ustezko eskubideaz. Esan behar da ez dagoela horrelako ahalmenik. Berriz aztertzeo eskatzen duen taldeak Konstituzioaren aurkako irizten badio proposamenari, itzultzeo eskatu beharko du, zuzenketak aurkeztu edo aurka bozkatu; baina ezin eska dezake Mahaiak bere gain har dezala bere eskumenekoa ez den funtzio bat, funtzio hori eztabaida gauzatu behar duten organoena baita.

Ez dago, era berean, ez "eduki jakin bat Araudian sartzeko eskubiderik" ez "Lehendakaritzak ebazpen orokor bat emateko eskubiderik". Egia da Konstituzioko 23.2 artikulua bere baitan dakarrela Konstituzio Auzitegiaren aurrean ebazpen orokorren aurka egiteko eskubidea, baina ez lehenengoan aurka egiteko, horien aurka kontituziozkotasun-errekurtsioa aurkeztuz baino ezin baita egin. Nahiz eta legebiltzarkideen eskubideak murrizten dituzten ebazpen orokorren aurka egiteko eskubidea dagoen, legebiltzarkideek jarduteko duten berdintasunaren aurka egiten delako-edo, ezin inondik inora ondorioztatu bestelako edukia duen eskubiderik ere badela, hala nola arau jakin bat edukitzeko eskubidea bezalako zer edo zer. Konstituzio Auzitegiak errepikatutako doktrinaren arabera, ez da bere eginkizuna aztertzen dituen arauak izan behar duten edukia zehaztea, baizik eta arauemaileak erabakitako edukia Konstituzioari lotzen zaion edo ez egiaztatzea. Horregatik, bada, Mahaiak ezin du onartu erabakia berriz aztertzeo eskatzen duen taldearen nahia.

Mahaiak azaroaren 4an hartu zuen erabakia, Araudia aldatzeko beharrik eta ebazpen orokor bat emateko beharrik ez zegoela hartu zen –ebazpen orokorrak eman beharri dagokionez, esan beti salbuespenekoa dela eman behar hori-; izan ere, erabakia hartzerakoan Autonomia Estatutuko 46. artikulua bete zuen, besterik ez; artikulua horretan zehazten dira zeintzuek duten Estatutua alda dadila eskatzeko eskumena eta zein den aldatzeko behar den gehiengoa, baita zuzenketak aurkeztu eta eztabaidatzeko prozedura ere, Legebiltzarreko Araudiak ohikotzat jotzen duena, alegia. Antzeko kasuak suertatzen direnean, gainerako autonomia-legebiltzarretan ematen den konponbide bera erabili da hemen eta, are garrantzitsuagoa dena, oso-oso-uzten ditu legebiltzarkideen ius in officium-a osatzen duten ahalmenak. Irtenbide hori, gainera, bat dator Kongresuaren eta Senatuaren araudiek Konstituzioa aldatzeko egiten duten aurreikuspenarekin.

4. Proposamenaren aurrekariari dagokien alegazioaz bezainbatean, eskaerak ez du dokumentu edo txosten jakinik zehazten. Eskaeraren izaera orokorrekinekin koherentea izanik, esan behar da Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean ez dela inola ere jasotzen Estatutua aldatzeko proposamenik presta daitekeenik botere betearazlearen baitan. Hori dela eta, proposamen horiei ezin zaie eskatu lege-aurreproiektuetan ezarritako baldintzak bete ditzaten. Hala ere, Jaurlaritzak bidalitako proposamenak zioen azalpena eta testu artikulatua ditu, Jaurlaritzaren legeak eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 101. artikulua adierazi bezala. Duen





helburuaren izaeragatik, ez du batere zentzurik pentsatzeak aurrekontuei kargarik eragin diezaiekeenik. Orobat, Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautzen duen apirilaren 13ko 187/1999 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz, Aholku Batzorde Juridikoa ez dago behartuta Estatutua aldatzeko proposamenei buruzko irizpenik ematera, nahiz eta beste autonomia-erkidego batzuetan desberdin arautzen den.

Bestalde, Jaurlaritzak Bozeramaileen Batzordean duen ordezkariaren bidez adierazi du Jaurlaritzaren Kontseiluak bakar-bakarrik erabili dituela Legebiltzarrean bertan Lehendakaria izendatzeko 2001eko uztailako saioaz geroztik izandako eztabaidak eta hartutako erabakiak, Autogobernuari buruzko 2001eko urriaren 25eko osoko bilkura, Autogobernuari buruzko Batzordearen lanak, Osoko Bilkurak 2002ko uztailaren 12an onetsitako irizpena eta politika orokorrari buruz 2002 eta 2003ko irailean izandako eztabaidak. Horiek badira ekimenaren aurrekariak eta horiek denak Ganbera honen eskuetan badaude, pentsatu beharko da baldintza hori ere bete egin dela.

5.- Mahaiak aurkezten zaizkion ekimenak konstituziozkoak diren kontrolatzerik baduela ukatuta, eta azaroaren 4ko erabakia berraztertzeke eskaerari dagokionez, ez da beharrezkoa ebaztea Talde Popularrak egiten duen proposamenaren interpretazioa zuzena den edo ez; izan ere, arestian esan bezala, proposamen bat kalifikatzeko eta tramitera onartzeko, Autonomia Estatutuko 46. artikulua aurreikusten dituen betekizunak betetzen dituen baina ez da begiratu behar, betekizun horiek besterik ez baitira ordenamenduan agertzen eta, horrenbestez, horiek dira Mahaiak aintzat har ditzakeen bakarrak. Eta egin, horrela egin zuen.

Azaldutakoa kontuan harturik, berriro aztertzeke egindako eskaera ezestea erabaki da.

Bukatzeke, Mahaiak erabaki du ekimenaren izapideekin jarraitzea. Beraz, zuzenketak aurkezteke epea berriro ireki da. Epe hori abenduaren 12an bukatuko da.

